

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2025 Erabakia, urtarrilaren 7koa. Onespena ematea Mario García García Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren konfiantzako idazkari kargurako izendatzeari

Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 8 eta 24 artikuluetan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailearen 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapenean jasorikoarekin bat etorriz, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, foru aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden behin-behineko konfiantzako lanpostuak beteko dituztenak izendatzea.

Horregatik guztiagatik, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak proposatuta, martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8 eta 24 artikuluek aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Mario García García izendatzea, behin-behineko langileek betetzekoa den Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren idazkari lanposturako (kodea: 1300.021).

Bigarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu 2025eko urtarrilaren 9tik aurrera.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 7a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR